

Goibek kale

Elgetako aldizkaria otsaila 43zk.

FERMIN IRIBAR
SAN ROKE 36-1

AMAIA

Goibek

**Ihauteriak lurpera
hurrengo urtera arte**

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxes: 94 6583061.

Posible al da?

Posible izango da jende askok irakurri izana joan den aleko erreportajia. Ba neri behintzat erreportaje horrek sortarazi dit galdera edo harridurik.

- Posible al da, ELGETA bezelako herri txiki trankil batean (suposatuta herriak ez duela "duro puta bat", edo euro puta bat"), non 1.000 biztanle baino gutxiago dituenak, horrenbeste proiektu edukitzea?

-Posible al da, horrenbeste INDUSTRIA jartzea? Berriz ere erreboluzio industrialia datorrela dirudi.

- Posible al da, turismoa ekarri nahian ASENTZION egin beharreko proiektua? Ze denera 420.000 metro karratu, lartxo izango da elgetarrontzako, ez?

-Posible al da, Elgetan egin behar diren ETXEBIZITZAK hain garestiak izatea? Kontuan hartuta horietako lur batzuk Udaletxearenak direla. Diru horrekin etxeaz gain zer nahi da ordaintzea, ba?

- Posible al da, Elgetako dinamika kulturala, KULTUR ETXEA eta AUDITORIUNA edukita 400.000 pza-kin aurre egitea? Denborarekin ez da geratuko (AUDITORIUNA) "muerto de risa" adibidez fonotekia-kin beste batzuen artian, gertatu den bezela?. Jakin badakit KULTURA familiako seme pobrea dela leku askotan, baina Elgetako kasuan miserable samarra ikusten dut.

- Posible al da, GOIBEKOKALE joan behar izatea, erreportajea egiteko informazioaren bila?. Niri bezela jende askori pasatzen zaio proiektuen berri, kaleko surrumuengatik enteratzea, eta honelako gauzak, aldaketa eta exagerazio ugari izaten dituzte (Urliak Sandiari metro erdi kolore gorria esaten dionean Sandiak Berendiari 3 metro eta kolore arrosa esaten dio, eta Berendiak beste norbaiti auskalo). Ez zen izango posible

noiz behinka Udaletxeak argitaratzea (adibidez GOIBEKOKALE bezela) elgetar guztientzat honelako gorabehera guztiak?

Amaitzeko, eta posible bada, gustatuko litzaidake elgetarra izanik eta Nacho-k esan zuenaren arabera "non amaituko da Elgetarren berrindustrializazioa? Bertako jendeak nahi duenean amaituko da. Industrializazioa hor dago bere gauza positibo eta negatiboekin eta herritarrek erabaki behar du etorkizunean zer gura duen." (uztaileko 37. zenbakiko 11. orrialdean)", niri tokatzen zaidan zatia dagon bezela uzteko, eta zerbait egitekotan herri guztiarentzat probetxuzkoa izan daitekena egin, kontuan hartu gabe etekin ekonomikoak, turistikoak, lukratiboak etab...

Josetxo Aranzabal 15385658-S

Gure lurra defenda dezagun

Asentzioko parkeari buruz aurreko Goibekokalen Patxik egindako baieztapen batzuk argitu nahi genituzke. Esaten du herritar asko ekologista bihurtu zela proiektuari aurka egieko, eta hori ez da egia. Aurka egon ziren talde asko, besteak beste, EHNE base-rritarren sindikatua, eta ez arrazoi ekologikoengatik bakarrik, Udalaren asmoak inguruko baserri esplotazioen aurkakoak zirelako, baita inguruko basojabeek ere, bere basoetan egin behar zituzten esplotazioak mugatuta gelditzen zirelako, behar bezelako kalte ordainik aurrikusi gabe.

Aurka azaldu zen Angiozarko bailadako batzarra ere. Proiektua aurrera eramateko orduan ez zituzten kontuan hartu, nahiz eta parke proiektuaren eraginak Angiozarko askok nozitu. Batzar honek, proiektuaren beste alor batzuekin ere bere kezak azaldu zituen. Eta parkearen egitasmoaren aurka azaldu ziren hainbat talde

ekologista ta mendizale, parke naturalaren izenean, turistak erakartzeko gune bat bultzatu nahi zelako, taberna, aparkaleku eta antzeko eraikuntzekin, benetan ingurugiroa kontuan izan gabe.

Nolako Elgeta utzi nahi diegu hurrengo generazioei? Gure inguru natural gutxiak porlanez beteta?

Patxiren sensibilitate ekologikoa Azkonabitzen egindakoarekin garbi gelditzen da, barne zailletik milioi batzuk kobratu, eta arau subsidiarioak aldatuz, gune babestu baten, antena eraikitzeke baimena eman.

Elgetako HB

Goibekokaleri:

Azkenengo alean egindako erreportaia dela eta honako hau adierazi nahi dugu:

Alde batetik." Goibekokale" aldizkari "independientea" izanik, ezin da ulertu nolatan Udaletxearen proiektuei buruzko erreportai bat egitean alderdi baten proiektuak bakarrik kaleratzea. Udaletxea osatzen duten gainontzeko alderdien iritzia kontutan hartu gabe.

Bestalde, hauteskondeak datozela eta, "kutsu clektoral" duen iragarkia eta hedapen zabaleko lortu duzue kaleratzea. Dohako propaganda eta Elgetako etxe guztietara helduko den ziurtasunarekin.

Lehen ere batzuen adierazteko askatasuna mugatu duzue eta oraingoan ere bai.

Elgetako Herri Batasuna

AENOR

ER

Empresa Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salvador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 6



Elgetako "movi- da"

Behin baino gehiagotan, herriko jendearekin komentatu izan dut kultura eta kirol arloetan Elgetan dagoen mugimendua, benetan

harrigarria gurea bezelako herri txiki batendako. Gaztetxeoak ez badira, pilota klubekoak, soziedade batekoak edo katekistak etab. dira ekimenak aurrera ateratzen dituztenak, normalean erantzun polit bat jasoz herritarren aldetik. Hauei esker Elgetako haur, gazte eta heldu aukera izaten dugu aisialdian, denbora librean disfrutatuta eta formatzeko.

Ekimen hauen eta beste batzuen atzetik Udala dago noski, egon bada, baina zerbait gehiago eskatu behar diogu. Udalak beste hainbat arlotan bezala eskaintza bermatu behar du kultura eta kirolean, herriko taldeek edo elkarteek dituzten ideak bultzatu interesgarriak badira, baina Udalak, bere kontu ere izan behar du bere azpiegitura, gutxienezko eskaintza propioa bermatzeko, garrantizatzeko. Horretarako baliabideak ezinbestekoak dira, langileak, toki egokiak eta dirua, besteak beste.

Mila biztanlera heltzen ez den herria gara eta horrek muga dezente ditu. Ezin dugu izan Eibarko kiroldegia edo Bergarako kultur etxea bezelakoak, baina hortik daukagunera aldea dago.

Dirudienez Udalaren egoera ekonomiko hobera jo du eta epe laburrean balioanitzeko aretoa izango dugu, kirol aldetik instalazio politak ditugu, hobetu klaro hobetu daitezkeela, baina momentuz, nire ustez nahikoa izan daiteke. Nahikoa bai aprobetxatzen badira, kultur edo kirol teknikariek orduak, dirua eta giroa badituzte lana egiteko.

Den denak beharrezkoak gara Elgeta bezelako herri batean, baina Udalak berea egin behar du, boluntarioak, zoritxarrez, ez baitira betirako eta beste zerbait ere beharrezkoa baita.

Besterik gabe, ea XXI. mendearen sarrerako Elgetak, arestian aipatutako baliabideak dituen.

Iñaki Ugarteburu



Txapel geihegi

Pilota mundua ere garai berrietara moldatu dela garbi dago.

Edozein egunetan telebistatik partiduak ikusteko aukera izaten dugu. Frontoiak berdez margotuta, ta horma guztiak iragarkiz beteak daude. Gainera inoiz baino Pilotari profesional gehiago dago, goimailakoak kriston diru pila kobratzen dutelarik. Hau dena Pilota munduan sartu diren enpresek eragindako aldaketa izan da, Pilota munduari bizitasuna emanez, gainbera zihoan kirol bat berriz indartuz.

Baina badago arazo bat biziki kezkatzen nauena, azken urtetan enpresarien arteko lehiak Pilotari egiten dion kaltea.



Enpresako interesak direla eta bakoitzak bere txapelketak antolatzen hasi dira, bakoitza bere telebista eta federazioaren laguntzarekin.

Betidanik Pilotako txapelketak izan duen lehia eta garrantzia pikutara bota dute.

Aurten binakako txapelketan bi bikote txapeldun izango dira (lau txapeldun), eta banakako txapelketetan beste bi txapeldun. Txapel gehiegi direla uzte dut, eta txapeldun guzti horiek ez dute benetako balioa izango. Enpresen arteko liskarrak direla eta Pilotako ikuskizunak galtzaile irteten du, kaltetuenak zaleak eta pilotariak izan direlarik.

Honi aurre egin behar genioke, mugitzen hasi enpresak hartutako bidea aldarazteko prezioa eginez, firmak bildu edo egun jakin baten frontoiei boikota eginez.

Sebas Aranzabal



GOJBEEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.
Zuzendaria: Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar.
Maketazioa: Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esfi Retolatza.
Publizistak: Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketa:** Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).
Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.
E-mail: goibeko@topagunea.jalgi.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Martxoak ekintzaz bete dute Gaztetxekoek

Adin guztietako jendearengana heltzea nahi dute Gaztetearen 3. urteurrenean

Martxoak 20an Gaztetearen 3. urteurrena dela eta hile guztirako ekintza ugari antolatu dituzte. Herriar guztiei gonbidapena luzatu nahi die Gazteteak urteurrena beraiekin batera ospatzeko.

Badira dagoeneko 3 urte, herriko gazteek Gaztetea martxan jarri zutenetik. Herriari begira 3 urte hauetan egindako lana aurreko aleetan ere askotan aipatu izan dugu. Martxoak 20an ospatuko dute urteurrena, hori dela eta ekintzaz beteriko hila-betea antolatu dute.

Martxoak 5ean, barikua, gaueko 22:30etan Morau kantautorea, hurbilduko da Elgetara.



Haurrek ere beraien eguna izango dute Gaztetearen 3. urteurrenean.

Hurrengo egunean Martxoak 6an Emakumearen eguna ospatuko da. Horretarako, arratsaldeko 19:00etan hitzaldia izango da Gaztetearen. Egun honetan bertan, gaueko 22:00etan Transito

Teatro taldeak "Leccion de Orgasmo II" antzeztuko du. Emakumeen eguna Martxoak 8an dela eta iluntzeko 19:00etan merienda izango da hurbiltzen diren guztientzat.

Hurrengo egunean Bilbon egingo den Elkartasun kontzertura joateko autobusa antolatzeko asmoa daukate Gazteteakoek, autobusean joateko txartelak Gaztetearen eta Haizean daude salgai. Autobusa betetzen ez bada ekintza hau bertan behera geratuko da.

Martxoak 18an Hitzaldi eta bideo proiektzioa izango da, gazteek interneten aurki ditzaketen txoko interesgarriene-

takoei buruz hitzegingo da, Eusnet, Sare Gorria, Baietz, Korrika 11... eta beste txoko ugari buruzko informazioa emango da.

Martxoak 19ko eguna hurrei zuzendua izango da, goizean goizetik mendira joango dira. Etortzen direnerako Guraso elkarteak bazkari goxoa izango dute prestatuta. Arratsalde partean jokoak izango dituzte eta iluntze partean Korrika Txikiak herriko kaleak zeharkatuko ditu. Haur guztiei ekintza hauetan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi die Gazteteakoek.

Martxoak 20an 3 urte

Urteurrena ospatuko da, eguerdian poteoa egingo da eta ostean bazkaria izango da, bertara joateko txartelak Haizea eta Gaztetearen eros daitezke. Bazkaria eta gero jokuak izango dira. Iluntzean ere poteoa izango da. Gaueko 22:30etan SKA jaiak Los Rancios (Bartzelonakoak) eta 12 Tribukoekin (Azpeitikoak).

Hilabete guztian zehar, domekatarik, pelikula izango dira arratsaldeko 17:00etan.



Bigarren Orgasmo lektzioa izango da martxoaren 6an.

GRUPO
IFA Produkturik onenak,
prezio onenean
Tel: 76 80 98.
ALDI

Andoni Bolinaga
METALAK
FS718
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Goibekokalek 4 urte apirilean

Martxoak 26an ospatuko dugun afarira gonbidapena luzatu nahi dizuegu

Badira dagoeneko lau urte, herriko gazteok aldizkaria sortu genuela. Urtero bezala, aurten ere, afari mundiala egingo dugu martxoak 26an.

Aurten afaria In-txorta elkartean egingo dugu. Afariaren kostua 2.000 pta. izango da. Apuntatzeko Patxi eta Haizea tabernatan, Gazte-txean edo ta Goibekokaleko erantzungailura deituta egin dezakezue.

Aurten sorpresatxo bat daukagu afarira etorriko direnentzat, afari goxoa eskaintzeaz gain Tapia eta Leturia trikitilariak izango ditugu gurekin gaua alaitzen.

Tapia eta Leturia apirilak 9an beraiekin egingo dugun kontzertu-emanaldia prestatzera etorriko dira besteak beste.



Goibekokalek dituen gauza on eta txarrak gogoratzen dizkigute urteroko afarian.

Aurten ez da korrika Elgetatik pasatuko

Hala ere eratu den batzordeak ekintza ugari antolatu ditu

Martxoak 19an hasiko da 11. Korrika Iruñean eta Donostian amaituko da 28an. Elgetatik ez da pasatuko. Hala ere herrian sortutako batzordeak ekintza ugari antolatu ditu.

Gaur egun AEK, Euskal Herri osoan lan egiten duen helduen euskalduntze-alfabetatze alorreko erakunde bakarra dugu eta 15.000 ikasle inguru ditu.

Irakaskuntza alorraz gain, berebiziko lana egiten du AEKk gizartean euskara bultzatu eta hedatzeko. Korrika, AEK Eguna, AEKanpada, EKIA txapelketa...

AEKk antolaturiko ekitaldiak.

Aurten lehenengo aldiz Korrika Kulturala delakoa jarri da martxan, gure herrian martxoak 11n Rogelio Botanz, kantautore kanariarra izango dugu. Martxoak 19an Korrika Txikia ospatuko da iluntzeko 19:30ak aldera. Haur guztiei deia egin nahi zaie batzordetik euskara bultzatzeko korrikaldi honetan parte hartu dezaten. Egun berean poesiaren alde eta kontra dauden zenbait idazle eta poetek emanaldia eskainiko digute udal-etxeko aretoan.

Hirugarren adinekoentzako programak

Hirugarren adinekoek programa zabala dute apirila eta ekaina bitartean egonaldiak egiteko. Hiru egonaldi mota daude, lehenengo Errioxa eta Nafarroako bainuetxeetako da, bertan egonaldiak 11 egun irauten du eta izen emateko epea martxoak 18an bukatzen da. Bigarrena, Alcoceberren (Castellon) hilabete edo bi hilabeteko egonaldiak dira, izen emateko azken eguna apirilak 16a delarik. Azken egonaldiak Galiziako Xanxenon izango dira. Egonaldiak bost egunetakoak dira eta izen ematea txanda bakoitza baino 15 egun lehenago egin behar da.

Egonaldiotara joateko beharrezkoa da 65 urte baino gehiago izatea, Gipuzkoan bizi zatea eta norbere kabuz baliatzeko gai izatea.

Prezioa bakoitzaren sarreren arabera izango da. Informazio gehiago udal-txean eskatu dezakezue eta izena berriz Bergarako Jubilatutxan eman behar da.

Maalako proiektuak aurrera

Otsailak 23ko plenoan Maalako proiektuak Gipuzkoako Boletín Ofizialean aurkeztea onartu zen. Horrela, hurrengo pausua auditorium eta eskeileren lanak zein enpresa eraikitzailek aurrera eramango dituen jakitea falta da.

Udal-txeak apirilerako lanak egingo dituen enpresa aukeratuko du, lanak azarorako bukatuta egon daitezten.

Erabilpen askotarako gelarako 38 milio eta eskileretarako 13 milioi daude aurrekontuan sartuta.

Leku paregabea, eguneko menua
Tel: 943 76 82 83
Astelehenetik ostiralera zabalik goizeko 9:00etatik

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA
Eguneko menua 800 pzta.
Karta.



Karnabalak

AMAI

Urtero bezala Angiozarko Herri Eskolako ikasleek Karnabaletako kale jira egin zuten, plazan egin zutelarik antzezen nagusia. Aurten kobazuloetako gizaki bihurtuta irten zuten, horretarako seguruenik balio-garri izan dutelarik Eskoriatzako museora egin zuten bisita. Zorionak parte hartu zuten guztiei.



Goiti-behera lasterketa

Irailen Angiozarren burutuko den Goiti-behera lasterketa dagoeneko pretatzen hasiak dira. Euskal Herri mailan egingo den txapelketako zirkuituaren barruan sartuko den karre- ra izango da Angiozarko eta Bergarako San Martinak eta Angiozarko San Migelak bitartean burutuko da, seguruenik hilarek 18an.

Oraindik astia egon arren laguntzeko prest dagoena taldera inguratzea ondo legoke, horrela antolaketa lanak lasaia egiteko eta arrakasta ziurtatzeko.

Angiozar Bailarako Batzarraren Bilera

Herritar guztiei gogorarazi nahi zaie Angiozar Bailarako Batzarrak hileko lehen martitzenetan egiten dituela bere bilerak Saloian. Bilera hauetan parte hartzea librea da eta zenbat eta gehiago hurbildu bertara orduan eta aberatsagoa izango da erabakitakoa.

Animatu eta parte hartu!

Mainddan argiak eta ur-hornidura jarriko dira aurten

Begarako Udalak aurten- go egitasmoen artean Mainddan urak eta argiak jartzeko asmoa du. Gogoratuko duzuenek Azkuntea izan zen lehenik bi zerbitzu hauek gozatu dituen Angiozarko auzoa, Partei-

txin ura ezarrita badago ere oraindik argi publiko- rik ez dute eta. Asmoa auzo guztietako guneak zerbitzu hauek edukitzeko baldintzak ezartzea da.

Ura dagoeneko

Jareikotxo baserriraino ekarrita dago eta hortik Mainddaraino jetsi eta etxeetara banatuko litzateke, nahi duenak hartuz ura. Urarentzat egingo diren lanak aprobetxatuz argi publikoak ipintzeko

lanak ere egingo lirateke.

Ea datorren mendeko lehen urteetan beste auzoetara ere zerbitzu hauek zabaltzeko aukera izaten den.

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETAIA ETA
ELJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

Iragarri zaitez.

Tel: 78.90.85

Faxa: 789043

Kamisetak erregalitzen jarraitzen dogu. Orainguan Ibane Irazabalek eruango dau Goibekokaleko kamisetia etxera.

Kamisetia lortzeko gurera idatzi eta behixa zala esatia besteik ez zeuan.

Oingua zailtxuaua da. Pista moduan esan bihar dogu ez dagola bizik. Kilo pilla bat ekazela be esan


geinke eta askoz gehixau esatia komeniko ez dalakuan ez goiaz pista gehixau emotera.

Erantzuna badakixu hartu boligrafua ta hasi idazten. Gure zuzuenbidia Betikua da:


Goibekokale aldizkarixa, Salbador kalia 2. Kultur Etxia.

Lu

W An Am Lu



Ai



Am

Jgorren Komikia



Goibekokale 43:2k

Zer pentsatzen jatzu aurtengo preziuen igoeria?



Pedro Estebes
Bihargina (37 urte)

Preziuen igoeria gaizki pentsatzen jata. Gauza batzun preziua bilddur-garri igo da proporziñuan, ta langilien soldatak barriz bardiñ-bardiñ dare. Gipuzkoako konbenixuan soldatak beherako joeria dauke aurtan da...

Preziuak igotzia gaizki ikusten dot, urte guztian zihar pixkanaka igo bihar litzakez. Tabernako kasuan adibidez, produktuen preziuak igotzian tabernarixek be preziua igo egiñ bihar izan dabe. Beste kasuetan berriz uste dot poliki-poliki egiñ bihar litzakela.



Eider Saratsua
Bihargina (22 urte)

Preziuak ez leukiez igo bihar, ez prezioik ta ezta jornalik be. Holan hobeto ibiliko giñake. Dana dala, preziuak soldatak baiño gehixau igotzen dira proporziñuan, ta ez litzake holan izan bihar.



Sebastian Arantzabal
Bihargina (37 urte)

Preziuen igoeriak gehixen bat bihargiñetan daka eragiña, igo diran produktuak egunero kontsumitzen diranak diralako. Gaiñera, preziuen igoeria golpera egiñ barik polikixau egiño balitzake, bigunau izango litzake jentandako.



Jaber Belar
Bihargina (52 urte)

Preziuak igo bihar litzakez soldatian arabera, behintzat proporziño bat jarraituta, ta soldatak ezin geinke esan hainbeste igo diranik.



M. Karmen Egiguren
Bihargina (33 urte)

Neri pentsatzen jata urtian hasieran golpera prezio guztiak igo biharrian, urte guztian zihar poliki-poliki igo bihar litzakezela.

M. Isabel Artzeloi
Etxekoandria (34 urte)



Iragarri zaitez.

Tel: 78.90.85
Faxa: 789043

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Kopa bat

Paxi Taberna

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

Janari

Jendenda

M^a ESTHER

Tel: 76 81 67

7
L
E
A
D
A
7
N
D
E
G
7
A

Aries: Osasunai ez dotzak/dotzan bape kasuik egitten ta badakik/badakin hortik datozela arazo danak. Hasi hadi behingoz zaintzen.

Taurus: Aldaketei aurre egitteko asmotan habil baiña hori danoi poliki-poliki egiñ bihar dok/don. Emaitzak ez dittuk/dittun bape txarrak izango.

Geminis: Hire seguridaderako berbak neurtzen ibiliko haiz, baiña ez dok/don beti lortuko.

Cancer: Dana hire mepian edukitze-ko nahi horrek dana hankazgora ipintzera bultzauko hau, nahiz ta hik hain argi ez ikusi.

Leo: Momentu estuenetan hire genixo txarra atarako dok/don ta hik ura doken/donan dana lortuko dok/don danen gaiñetik.

Virgo: Biharrakin ta diruakin dana eginda dagola pentsatzen dozu ta izuarrizko bronka botako dotsue.

Libra: Sexua bakarrik dakak/dakan buruan. Hori ez dok/don txarra baiña horrekin batera beste gauza asko jaozak/jaozan.

Escorpio: Senai kasu gehixau egitten badotzak/badotzan gauzak beste modu batera urtengo dotsue, egiñik/egiñin pruebia.

Sagitarius: Sorpresa haundixa dakak/dakan zain, bestiak ez jotzek/jotzen importantziaik emongo, baiña hire bizimodua ziharo aldatuko jok/jon.

Capricornius: Sagitariok sorpresa jaso bihar bajok/bajon, hi kontuz ibili biharko haiz hire ingurukuekin.

Acuarius: Ez dok/don toki egokira begiratzen. Hori pertsonioi ez dok/don aproposena hiretako.

Piscis: Buruak bihar asko egitten jok/jon, ezta? Askotan alperrik, ezta? Beti leku bardinera aillegatzeko... hobeto bihotzakin pentsatzia.

Arantza Gorritxategi Bihargiña (26 urte)

- Elgetarra sentitzen zara? Ez, oindio ez.

- Nun ezagutu ziñuan mutilla? Ermuan, oin dala urte asko.

- Afiziño berezi bat? Txistua.

- Ze eritzi dakazu Elgetai buruz? Pentsatzen ziñuana baiño hobeto moldau zara hemen?

Herri txiki jator bat dala. Bai iñungo arazoik barik.

- Juergia gustatzen jatzu? Zein da gehixen gustatzen jatzun herrixa juergarako?

Pixkat bai. Gasteiz, Ermua edo Elgeta bera be bai.

- Ezkontzeko asmoik bai? Ez, oin-goz ez.

- Zertan egitten dozu lana?

Unibertsitate Laboralian, ordena-doretarako programak egitten.

- Egunero derrigorrez egiñ bihar dan gauza bat? Musikia entzun.

- Ospatu dozu San Balentin eguna? Ez, ez dot ospatu.

- Zenbat urte gustauko jatzun eukitzia beste adin bat aukeratu bihar izan ezkerro? 17.

- Zein da telebistan inoiz ikusiko ez ziñuken programa bat? Lo que necesitas es Amor eta Sorpresa-Sorpresa.

- Leku publikuetan erretzian aldekoa zara? Jentiai ez botza inporta, bai.

- Aspaldittik ezagutzen ziñuan Elgeta? Bai, txikitatik.

- Kalimotxua ala zerbezia nahixau? Zerbezia.

- Eskiatzen dozu? Ez, ez dakat ideaik bez.

- Txistua jotzen zenbat urte? 19 urte.

- Zure gelan sartu ezkerro zer aurkittuko giñuke?

Kokodrilo pillo bat.



Berezitasuna:

Buztana.

Pintxo gozoak otartekoak.

BOLATOKI

TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak

Sukaldeak

Etxaurreak

Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

Elgetan ohitura gutxi duen ospakizuna da ihauteri eguna. Badirudi azken urte hauetan indartzea nahi dela. Jendea, egun batez behinik behin, mozorrotuta ikustea polita eta aldi berean dibertigarria izango delakoan, ihauteriak hasi aurreko azken barikuan "Elgetako ihauteri eguna" bezala bataitu dezakeguna ospatu zen. Egun horretan, zenbait tabernen laguntzaz eta Gaztetxeko gazteek bultzatuta, jai giro politaz (ez beste herri batzuetan bizi daitekeena bezalakoa, noski!) gozatzeko aukera izan genuen. Gaua luzea izan zen eta batek baino gehiagok etxera heldu orduko mozorroa ere galduko zuen.



Zer izan eta

Ihauteri hitza hiztegian begiratu gero definizio hau aurkitzen dugu: "Tradizio katolikoa duten lurraldeetan, garizuma aurreko hiru egunen multzoa. Hausterre-egunaren aurreko igande (zaldun-ihaute), astelehen (astelehen-ihaute) eta asteartez (astearte-ihaute) osatua; egunotan ospatzen den jai."

Etimologikoki ihauteri hitza aratusteari lotuta dago. Zentzu ertzi batetan garizumaren lehenengo eguna esan nahi du. Ihauteriak negu partean egiten diren ohituren barruan sartzen dira. Aintzinan zomorroen erabilera eta egun alaitsu haiek ez dute zerikusirik gaur egun ematen zaion esanahiarekin. Gaur egun algara eta jaigi-roak ez dute esanahi berezirik, baina lehen, espiritu txarrak usatzeko era bazela uste zen.

Kristautasuna heltzearekin bat, ospakizun honek zuen esanahi magiko eta sinbolikoa galtzen joan zen, nahiz eta festa egiten jarraitu izan den.

Gaur egun ihauteriak bere bapatekotasun guztia galdu du. Italia aldean eta beste zenbait lekutan ohitura mantentzen da, baina orain jai komertzialak bihurtu dira. Gure artean



Iragarri zaitez.

Tel:78.90.85

Faxa: 789043

**IBAIBA-
RRIAGA**
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salvador zeharbidea 2
ELGETA

**E
HARATEGIA**
**A
S
T**

San Roke 6
tel: 768168.

bertan bihurtu

ere antzerako zerbait gertatu dela nabaria da. Umeez jai egun bezala hartzen dituzte ihauteriak, hau da, ikastolara ez joan behar izanaren aitzaki bezala. Nagusiek berriz, kalera atera eta festa on bat egiteko aukera bezala hartzen dute jai hau.

Karnabalek duten beste ezau-garrietako bat identitatea galtzearena da. Mozorro baten azpian jende askok bere identitatea galtzen zuela uste izan da eta horrek broma, irain eta beste zenbait gauza egiteko askatasuna ematen ziola ere uste izan da.

Elgeta inguruan, Elgeta barne, ihauteriek ez dute ohitura handia. Gaur egun inguruko herri guztietan ospatzen badira ere, eta jende asko elkartzuz, lehen aipatutako festa egitearren aitzaki bezala erabiltzen da.

Gipuzkoa mailan, ohitura gehien duen herria Tolosa da, berezitasun bezala sokamuturra izanda. Dena den, garai batean Donostiakoak ere oso famatuak izan ziren, Europa mailan famatuenetarikoak Nizakoa eta Veneziakoarekin batera.



Guzti hori gau partean izan zen, baina arratsaldez, urtero bezala, ikastolako gaztetxoek bere ihauteriak izan zituzten. Esan bezala, ostiral arratsaldez izan zen, urte askotako ohitura aldatuz. Aurten ere, beste ohitura bat hautsuz, umeez horren gustoko duten txokolatada gabe gelditu ziren, askorentzako urteko arratsalderik gustokoena denaren mamia kenduz. Dena den, arratsalde polita izan zen, era guztietako mozorrorak ikusteko aukera izan genuen. Ezin bat bestearen gainetik gorai-

patu asko izan ziren eta elegante-elegante atera zirenak. Bertan ikusi ahal izan genituen pailazoak, sorginak, presoak, lorea bere erleaz lagundurik, punkyak... Azken finean, bariku polita bai gazte eta ez hain gazte direnentzako. Ohiturari jarraituz egun honetan herriko batek baino gehiagok mozorroaren laguntzaz bere identitatea galdu zuen. Dena den, ezin ziurtatu gainean zerman mozorroarengatik izan zenik...



ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Aurten ere korrika

Korrikak, gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia zuzpertzera eta gau eskola eta euskaltegi ezberdinen eguneroko lana indartzeko dirua biltzea du helburu.

Korrikak zazpi probintziak zeharkatuko ditu lasterka. Bere ibilbidean lekuko bat eramango du Korrika bukatzerakoan irakurriko dena.

Egin zen lehen aldia 1980an izan zen eta Onatitik Bilbora joan zen. Hamar edizio egin dira eta hamaikagarrena izango da orain. Azkena bi urte dela egin zen eta Arantzazutik Bilbora izan zen. Aurreko edizioetan bezala, aurten ere Elgetatik ez da pasatuko. Iruñeatik irtengo da eta Donostiara iritsiko da eta Martxoaren 19.etik 28.era egingo da.

Euskaltegitik Elgetarrentzako euskaraz bizitzeko gonbitea

Euskaltegian Vicky, Mari Jose, MaCarmen, Marga, Ana eta Guadalupe ikasten ari gara. Bigarren urratsa ikasten gabiltza.

Euskaldun herri batean bizi gara eta gustatuko litzaiguke jendearekin euskeraz hitzegin ahal izatea eta bereziki gure seme-alabekin.

Lehenengo urtea erreza iruditu zitzaigun baina zailagoa iruditzen zaigu urrats hau nahiz eta ez garen desanimatzen.



Elgetako euskaltegiko ikasleak: Euskaldun herri batean bizi gara eta gustatuko litzaiguke jendearekin euskeraz hitz egin ahal izatea, bereziki gure seme-alabekin



Elgetako liburutegian izaten dira AEK-ko eskolak


HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

TXUTXUAK

Sukaldariak: haurrak



NOLA PRESTATU:

Hasteko, uruna, ura eta esnearekin bola bat osatu arte ondo nahastu. Ondoren, gatz apur bat bota. Gurina gehitu eta eskuekin ondo nahastu eskuetan pegatzen ez den arte.

Ondo nahastuta dagoenean, oreari sumenditxo bat egin erdian eta bi edo hiru arrautza bota. Ondo nahastu eta bolatxoak egin.

Labera sartu eta arrotzen direnean atera.

OSAGAIAK:

Basokada bat uruna
Basokada bat esnea
Basokada bat ura
2 edo 3 arrautza
Gatz apur bat
Gurina



GOMENDIOAK:

- Arrotuta daudenean jakingo dugu eginda daudela.
- Orea egiteko, norberak neurtu behar du zenbat gehitu behar den.


Estetika eta Masaia



MAITE CEBRIAN

Andra Mari Plaza, 1
Tel: 943 76 82 72 Elgeta

Komentu Kalea, 12 - 1
Tel: 94 681 63 75 Durango



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

TAPEM, S.A.

Trokela eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

Pilota: Gipuzkoako klub arteko finalak

Urretxun jokatu zirenfinaletan bi txapel eta azpitxapel bat eskuratu zituen Ozkarbik

Urrezko bi domina eta zilarrezko bat eskuratu zuten elgetar pilotariak. Urrezko lehendabizikoa Xabier Uberak eskuzbanakako finalean lortu zuen. Debako Bastida izan zuen aurkari eta Xabierrek zortzian utzi zuen partida erraz batean. Aurretik, finalerdietan, Anoetako klubeko pilotaria hiruan utzi zuen Elgetan.

Aranzetak berriz, bergarako Gutierrezekin batera nagusien bigarren mailako txapela eskuratu zuen Martin eta Maiztegiri 22-13 irabazi ondoren. Aldiz, Aitor Ubera eta Iñurategi hamabostean geratu ziren Aretxabaletako Errasti anaien aurrean.

Frontoia berdez

Udaletxearekin akordio batera irisi ondoren apiilean hasiko dira frontoiko lanekin. Hasiera batean frontoiko teilatua konpondu nahi bazen, momentuz frontoia berdez margotzen hasiko dira teilatua konpontzekak diru asko delako. Margotze honek orain arteko argi sistemari aldaketak ekarriko ditu. Argi gehiago eta indartsuagoa beharko da telebista datorrenean partidak era egoikiagoan emateko eta gainerantzeko ekintzetarako.

Bestalde, Ozkarbik ETBrenkin hiru urtetarako kontratua sinatu berri du eta txapelketari izena ematen jarraituko du aurrerantzean.



Ozkarbiko pilotari eta arduradunak txapelak jaso ondoren.

Estampaciones Elgeta lehenengo Eibarko txapelketan

Ligaska hasi zenetik ez dute partidarik galdu

Ligaskako zortzi partida jokatu badira, zortziak irabazi dituzte elgetarrek. Honek, elgetarrak sailkapenburu bakoarrik egotea ekarri du. Bigarren doan taldeari garaipen bateko alde ateratzen diotelarik. Gauzak honela, eta bigarren itzulia hasita dagoenean elgetarrak txapelketa eskuratzeko faborito nagusiak dira.

Azkenean konplikatu zitzaizen partida bat edo beste ezik, esan daiteke gainerantzekoak estuasun gehiegirik gabe irabazi dituztela. Jokatu zuten azkena 32-19 markagailuarekin amaitu zen. Emaitza urria, norgehiagoka amaitzeko hamar minuturen faltan, beste taldeko jokalarik baten lesioa zela eta partida bertan bera geratu baitzen.

Futbitoan talde bat gutxiago

Txapelketako lehendabiziko partidatarik ez agertzen txapelketatik kanpo geratu da Urien. Orain hasierako zortzi taldeen beharrez zazpi izango ditugu. Honek, partida batzuk jokatu gabe geratzea ekarriko du, kalendariora berregituratzea komeniko litzatekelarik.

IRAMA
Instalazioak eta mantentze lanak



24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatu: 247262
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA



Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078

Bi anaia eta zaletasun bat: futbola

Oxel eta Koldo Erostarbe txikitatik hasi ziren futboleko jokatzeko. Elgetan, gaur egun gertatzen den bezala, ez zegoen kirol asko egiteko aukera. Biek ere bide berdintsuak jarraitu zituzte. Lehenik Urkin jokatu zuten ondoren Eibartarrak taldera pasatzeko. Eibarreko teknikoak beraien balioak konturatu eta azpiko mailatan jokatzeko deitu zituzten. Erostarbetarrez gain herrian izan ditugu futboleko jokatu duten beste anaia batzuk ere, hala nola, Irazabaldarrak, Makarrotarrak... futbolarako zaletasuna dagoen seinale.

- Noiztik futboleko jokatzeko?

Oxel: Gazte gaztetatik hasi ginen. Lehenengo hiru urteak Urki eta Eibartarrak taldeetan egin nituen. Kadete mailan Eibarrera pasatu nintzen ondorengo lau urteetan bertan jokatzeko. Gaur egun UDAn jokatu dut, Preferentean.

Koldo: Nik ere Oxelen bide berdina jarraitu dut. Lehenengo urteetan, Eibarrek fitxatu arte, Urki eta Eibartarrak jokatu nuen. Orain Lehen Mailako jubeniletan jokatu dut.

- Nondik datorkizue futbolarako afizioa?

Oxel: Etxean ez dugu futboleko jokatu duenik izan. Txikitatik gustuko izan dugu futboleko aritzea eta Eibarrera joateko aukera izan

genuenean ez genuen birritan pentsatu.

Koldo: Modan zegoen kirola zen. Pelota eta futbolaren artean aukeratu behar izan nuen eta bigarrena aukeratu nuen.

- Luzaroan jarraitzeko asmoa?

Oxel: Gaur egun, lehen aipatu dudak bezala, Preferente mailan jokatzeko ari naiz. Bertan jarraitzeko aukera ematen badidate beste urtebetez behintzat jarraituko dut.

Koldo: Nik ere jarraituko dut. Oso gustokoa ari naiz.

- Futbolaz aparte zer duzue gustoko?

Koldo: Lagunekin ibiltzea oso gustokoa dut. Horretaz gain, pelotan jokatzeko ere asko gustatzen zait nahiz eta azkenaldian ez dudan asko jokatu.

Oxel: Denetik. Mendira joan, lagunekin egon, parrandak egin... Futboleko jokatzeko gauza guzti hauek egiteko denbora kentzen digu.

- Futboleko jokatzeko ez al dizue beste gauza asko egiteko aukera kendu?

Oxel: Baietz uste dut. Orain dela pare bat urte jubeniletan ari nintzenean ez nuen horrela



Oxelek eta Koldo gure erredakzioan izan genituen.

pentsatzen. Pasadan urtean adibidez, jubeniletan maila gorenera igotzea lortu genuen eta ondo zabiltzanez ez duzu horrelako gauzetan larregi pentsatzen. Dena den, asteburuetarako planak eta antzerako ekintzak egitea ezinezkoa da.

- Futbola eta ikasketak eramangarriak al dira?

Oxel: Egia izan ez da oso erraza futbola eta ikasketak konpaginatzeko. Biek ere denbora asko kentzen dute.

- Zer datorkizue burura jendeak behin eta berriz futbola hainbeste kritikatzeko duenean? Ez al da moda bat?

Koldo: Komunikabideek orokorrean garrantzi larregi ematen

diete futbolarari. Gaur egun futbol emankizun larregi ikusten ditugula uste dut.

Oxel: Gaur egun futbola kritikatzeko modan dagoela uste dut. Mundu guztiak "herriaren gaitza" dela dio, baina gero behin eta berriz futbolaz hitz egiten ari dira. Askok gainera ezer jakin gabe. Dena den, gaur egun informatibo bat ikustean, zati dexente bat futbolaz betetzen dute eta hori gehiegikeria bat dela deritzot. Urte batzuk barru jendea kantsatu egingo da eta futbolak beherakada handia jasanango du.

- Elgetan futbol talde bat sortzea posible al da?

Oxel: Oso zaila dela uste dut. Batez ere jendeak ez lukeelako seriotasunez hartuko. Regional mailan aritzeko taldea badagoela uste dut.

Koldo: Oso nekeza dela uste dut. Futbito taldeak egiterako orduan ere arazoak daude, beraz...

Koldo: Modan zegoen kirola zen. Pelota eta futbolaren artean aukeratu behar izan nuen eta bigarrena aukeratu nuen.

ERREKALDIA

Ermita: San Kristobal

Jaia: Uztailaren 10ean

San Kristobal egunaren bezperan edo bezperaurrekoan hasten dira jai antzean pinua jasotzearekin. Hau iluntzean egiten da eta ondoren auzoko gazteek txokolate jana egiten dute.

Normalean bi edo hiru egunetan izaten da erromeria, horietatik San Kristobal eguneko auto bedeinkaziñoa delarik ekintzarik famatuena (kotxeak lorez adornatuta bide baztarrean egoten dira parkatuta eta abadeak banan-banan bedeinkatzen ditu). Dantzaldiak gauz izaten dira eta San Ferminetara joan ez direnen topaleku.

Gainera martxoko egun baten meza ospatzen dute auzokoen alde (Hermandadeko Meza) eta beste meza bat maiatzak batean.

Auzotarren bat hiltzen denean bederatziruureneko meza ere bertan ospatzen da.

Baserriak eta etxeak:

- Loidi Etxebarri
- Loidi
- Loidi Bolu
- Loidi Bolu berria
- Askasibar
- Askasibar Bolu
- Askasibar Bolu berria
- Belastegirena
- Meltxorrena (Unamuno Berri)

- Aldai Etxebarri
- Aldai Gaiñekua
- Aldai Aurrekua
- Aitzol
- Gaztelu
- Aldai Azpikua
- San Kristobal
- Elkone (Elkoro Berezibar)
- Bitzibar (Berezibar Erdikua)
- Bitzibar Barrena (Berezibar

- Barrena)
- Edui (Eduegi)
- Amuskibar
- Amuskibar Bolu
- Gaittao Aldekua (Garitano A.)
- Gaittao Gainekua (Garitano G.)
- Gaittao Erdikua (Garitano Markezkoa)
- Gaittao Barrena (Garitano B.)
- Osingain

Hona hemen hiru baserri eredugarri bai erai-kuntzan zein egin ziren garaiarekiko. XV. mendearen aurretik Euskal Herrian zeuden baserriak zurezkoak ziren denak, egurrezko eskeletoari kanpoko hormak goitik behera jositako oholekin egiten zitzaielarik. Jauntxoan dorretxeak libratzen ziren horretatik, hauek harriz eta horma sendoz eginak egonik, batak bestearekin zituzten borroka eta gorabeheratarako gertu.

XVI. mende hasieran hasi ziren harrizko baserriak jasotzen, hau da, nekazaritzarako bideratuta zeuden etxeak harriz egiten. Biztanle guztiei orokorrean aitortu zitzaizen garai hartan jatorrizko noblezia eta, jauntxoan antza hartu nahirik edo, ahal zuenak harrizko etxea jasotzeari ekin zion, horrela familia osoa etxearekin identifikatuz eta bertatik izena hartuz.



Gaztelu baserria

Dena den ez zen aurreko teknika bapatean ahaztu. Baserriak egitura finkoa betetzen zuten: kanpoko lau hormak harrizkoak eta gainera beste bat ere, normalean etxaurretetik atzeko hormaraino zihoana, harrizkoa egiten zen suteen aurka etxea abesteko. Egitura hau gaur eguneraino mantendu da gure bailarako etxe

gehienetan, denetanez esateagatik. Baina barrukaldeko beste osagai guztiak zurezkoak egiten ziren, aurreko teknikari jarraituz, eta batzutan kanpoko atal zabalak ere bai. Kanpoko zatiak zurezkoak egiten zireneko eredu ederra Gaztelu-azpikoa baserria izango litzateke, nahiz eta gaur egun ladriloz ordezkatuta

eduki mende honen lehen erdiraino oholezkoa zuen fatxada zabala. Lan egiteko modu hau ez zen etxetara mugatu, elizak ere jaso ziren teknika berdina jarraituz eta horren lekuko dira Angiozarko San Migel eta San Kristobal ermita bera (ikus "ZUREZKO ELIZAK EUSKAL HERRIAN" liburua).

Hasiera baten baserri-tarrek mendi hegieta-ko erdi aldea zuten gustoko etxea jasotzeko, beheko lautadak arriskutsutzat hartzen baitziren. Baina populazio igoerak behe aldetan gainezka pilatu zuen jendea eta goi aldeko aldapetan ere etxeak jasotzeari ekin zitzaion, batez ere XVII. eta XVIII. mendeetan, artoa Ameriketatik ekarri eta bertan landatzeari ekin zitzaio- netik. Landare hau izan zen baserri askoren salba- mena, XIX. mendean patata eta babarruna izan ziren bezala.

Amuskibar, Gaztelu eta Meltxorrena har ditza- kegu baserriaren garai desberdinetako eredu. Amuskibar errearen iba- rrean. Gaztelu mendi al- dapa erdian, antzinako garaian lekuko, bere ize- nak dioskunez. Meltxo- rrena mendi gainean ia, artoaren garaia leku- ko.

Nahiz eta garai des- berdinetakoak izan uni- formizazio prozesua ja-

Amuskibar baserria



Meltxorrena baserria

san dute denboran zehar, hirurek oso "San Kristo- balkoa" den ezaugarria dutelarik, hau da, arku bat baino gehiago eduki- tzearena. Meltxorrena eta Gazteluk bina dituzte, baina Amuskibarrek hiru ditu etxaurrean eta beste bat etxostean, bi bizitzata- rako sarrera eskeiniz. Gipuzkoan oso gutxi dira hainbeste arkudun etxe- ak.

Arku barroko hauetan bikainenak Gaztelu eta


Amuskibarkoak dira, har- landuz eginak. Meltxorre- nak, ostera, Aldai-gaine- kua eta Gontzarri gaine- kua baserrien eredua jarraitzen du, arkuak eduki arren harri xehez, landu barik eginak dituz- telarik.

Etxearen egituraren aldetik aipagarriena Gaz- telurena da, ondo berezi- ta ditu eta jendearentzat bizilekua eta baserriko beste aldeak. Gaztelu baserriak orain duen itxu- ra duela bi urte hartu

zuen, etxearen fatxadan egindako lanek itxura bateratua ematen lagun- tzen dutelarik, sarrera mendebaldera begira duen etxe bakanetarikoa izanik berau. Gainera nabarmen du garai baten upategia izandako etxaz- piko aldea, gaur egun oilotegitarako erabiltzen dutena.

Gaztelu baserrian In- tzatarrak bizi dira. Etxe honetako jatorria zuen Migel Inzak, Angiozarko Jakobenara ezkondu eta garia garbitzeko makinan tailerra eduki zuena.

1868an Gipuzkoako Juntek Zumaian egin zuten batzar orokorrean erabaki zuten Bergarako Ozetatik Angiozarko ka- leraino bide berria egitea. Bide honek zeharo alda- tuko du ordurarteko bi- deen erabilera, trafiko nagusia bide berritik eza- rriko delarik, bai errekon- dokoa eta baita mendi gainetik zihoana, Elgeta- tik Bergarara, baztertuz, komunikazioan Meltxo- rrena izango delarik kalte- tuena.



Herriko txakurrak ta gu

gehixau izaten dau-ta txakurra txixa egittera etaratzeko. Holako leku bukolikotan jentia lasaixau bizi da, ez daka konpetitu biharrik, hemen dana eskura dakagu. Gaiñera, zertarako ikasi ingelesa, zertarako frantsesa, zertarako informatikia, zertarako gimnasia fan, zertarako ..., zertarako ... Eta, ikastia nahitta be, gehixenetan ez da aukera haundirik izaten holako ezer egitteko. Hirixetan bai, lehenengo ingelesa, gero euskeria (hirixetan ikasi bihar izaten dabe-ta, ez herrixetan moduan) gero informatikia, gero pianua, gero hitzaldin bat, gero zinera, gero kontzertun batera, gero dendak ikustera, gero ... gero-kuak.

Esan biharrekuak esan zittuen eta esamiña amaittu zan. Aztertzaillioek elkarri begiratu eta berehala komentarioak. Izan be, nerekin eguana

Gu bai ederto bizi herri edo basarrietan, txakurra etara eta eguzkixa hartu, kolore gorrixekin sano-sano egoteko ta hirittarrei inbidixia emoteko.



basarri baten bizi da herri haundi batetik kilometro batzutura. Gu bai ederto bizi herri edo basarrietan, txakurra etara eta eguzkixa hartu, kolore gorrixekin sano-sano egoteko ta hirittarrei inbidixia emoteko.

Holako arkadia zoriontsuan jakittun jaiotzen ete gara? Bai zera, kantuak esaten dabent moduan gazte gaztetandikan herritik kanpora zeozer ikasi nahi baldin

bada, eta gerora be, ikasten jarraitu nahi bada, hirixetakoak baino erreztasun gutxiagokin, baktax ahal dabent moduan. Eta ez bakarrik ikasteko, juergan etxeko be herri-txik atera bihar.

Badakixue, bentaja guztiak dakazue txakur bat izateko; baiña ez, ikasteko, aurrera egiñ, eta konpetitibuak izateko. Eta gogoratu, txakurra kalera eteratzerakuan, inor ez molestatzeko, bozala jarri (txakurrai), kateittik ondo lotuta eruan, eta atzian kortxua sartu (hau be txakurrai). Izan be, oiñ herriko txakurrak be hirixetakuak beste die kalera eteratzerakuan.

Enrike Gorrotxategi

Kontua da, aurreko batian ni eta beste bat jentiai ahozko esamiña egitten ari giñala; eurak gai baten gaiñian berba egiñ, eta guk entzun. Halako batian, esamina egitten zeguan bat etxeko animalixen gainean ari jakun, eta zera esan zozkun: berari asko gustatzen jakozela txakurrak, baina Bitorixa moduko hiri haundi baten ezin direla euki ze, ez ei zekan denborarik txakurra bihar dan moduan atenditzeko, hau da, txixa egittera etaratzeko. Eta ez zekan denboraik, beti zekalako zeozer egitteko edo ikasteko, ikasi biharra ei dago. Badakixue, hau gizarteau oso konpetitibua da, eta holako gurpil zoruan irauteko gero eta hobeto pretauta egon bihar, eta, jakina, denborarik ez txakurra txixa egittera etaratzeko.

Gure moduko herri txiki edo basarri baten bizi ezkeru bestelakua izango ei zan asuntua, jendiak denbora


Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273



KONTXI ARRANDEGIA
Salbador 5 Tel: 768009



Don Juanekin Arantzazura

Erretratuia 1942 inguruan etaratakua da. 7 eta 9 urteko mutikuak giñan orduan sasoian. D.Juanek antolauta, Arantzazura egiñ giñuan eskursiñua; hau danau kantore onak izatiarren.

Udako bakaziñuak zian, eta aparteko egualdixakin urten giñuan “Osintxu”-kin Bergara aldera. Bergaratik Oñatira trenian, primeran... terzerako billetiak. Handik gora oiñez Arantzazuraiño. Goruzkuan errezau be egiñ giñuan.

Arantzazun pelotan ibilli giñan. Partidu inportantia guretako! Bazkaldu maletan eruandakua, eta bueltan etxera. Oñatittik Bergarara kenduta, biaje osua oiñez egiñ giñuan. Txio egiñda aillegau giñan etxera, baiña seguruenik bakaziñue-tako egunik ederrenetakua izan zala.

Atzeko ilaran ezkerretik eskumara: **Sabin Gallastegi, “Txaraka”;** **Daniel eta Pedro Arantzeta, “Larrabiltxo”;** **Felix Altzuaran, “Egotxia”;** **Joakin Atxukarro “Goikokale”.**

Aurreko ilaran: **Luis Mari Irazabal, “Zeleta”;** **Inazio Arizmendiarieta, “Baldo”;** **bixak eskuan pelotak dittuela;** **Andres Akasibar, “Etxetxo”;** **Jose Luis Elkoro “Mantunekua”;** **D. Juan Arretxe;** **Luis Altzuaran, Felixen anaia;** **Felipe Maiztegi, “Artekale” eta Jose Mari Telleria, “Amerikanuena”.**

Jose Mari Telleriak

Elgetako 1999ko martua

gaztetxiak 3 urte

Morau

barikua 5, gabeko 22:00etan

emakumien eguna

Zapatua 6

- Hitzaldixa atsaldeko 18:00etan

- Merienda

- Antzerkixa: La patro antzerki taldiak in leccion de orgasmo 11 gabeko 22:00etan

Rogelio Botanz

(Kanariarra)

eguna 11, gabeko 22:00etan (korrika kulturala)

Elkartasun egunerako autobusa

Zapatua 13 Bilbon

eguna 18, hitzaldixa:

uskal sare gorria interneten

gabeko 21:30etan

zapatua 20

emakumien eguna

3 urte

Barikua 19

- Mendira irteria

- Bazkaixa

- Korrika txikixa

- bazkaixa, jolasak, poteua

- kontzertua:

Los rancios (Bartzelona)

eta 12 tribu

gabeko 23:00etan

Poesiaren

aldakoen eta kontrakoan

arteko kontraberria

Gerardo Markuleta, Arantxa Ozaeta, Kirmen Uribe eta Iban Zaldua

Barikua 19, gabeko 22:00etan

(korrika kulturala)

Goibekokaleko afarixa

Tapia eta Leturiakin

Barikua 26, Intxorta elkartian

Domekero pelikulak gaztetxean atsaldeko 17:30etan